

MUko IDeO Innovation City-n San Pankrazio festa ospatu da lehen aldiz

2014/05/13

GEP-ko fakultateak ikasturte honetan kanpus berria zabaldu du Donostian, eta bertan ere, San Pankrazio egunarekin bat egin dute hainbat ekintza antolatuz.

MUko Kirol Zerbitzuak ere lagundu du egun horren antolaketan, hainbat kirol txapelketaren antolaketan lagunduz; futbol 5 txapelketa, 3x3 saskibalo txapelketa eta toka, wii, ping-pong eta dardoen lehiaketak antolatuz.

Hemen ere eguraldia lagun, giro aparta izan zuten eta gustora aritu ziren parte hartzaileak. Luntx solidarioa ere izan zuten unibertsitateko ikasle zein langileentzat.

Eskerrik asko parte hartzaile guztiei.

